

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia Iragarkiak

IDAZKARITZA NAGUSIA

Foru Gobernu Kontseiluak 2021eko urriaren 13ko ohiko bilkuran onartutako ebazpen laburpena

– Erabakiak:

DIPUTATU NAGUSIAREN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 590/2021 Erabakia, urriaren 13koa. Onestea Silvia Nuñez Castro aholkularitza bereziko eginkizunak dituen behin-behineko lanpostua uztea, berak eskatuta.

EKONOMIA GARAPENAREN, BERRIKUNTZAREN ETA DEMOGRAFIA ERRONKAREN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 591/2021 Erabakia, urriaren 13koa. Zuzeneko dirulaguntza ematea CTA fundazioari eta Euskal Herriko Unibertsitateari eta onespena ematea Aernnova Aerospace SAUrekin hitzarmen bat sinatzeari, aeronautikako doktoreak prestatzeko (CONAVANTER 2021-2022 proiektua).

Foru Gobernu Kontseiluaren 592/2021 Erabakia, urriaren 13koa. Onestea Araban berrikuntza sustatzeko laguntza lerroaren ebazpena (Araba Berritzaile - Digitaliza 2021-autonomoak), zeinaren deialdia abenduaren 22ko 667/2020 Erabakiaren bidez egin baitzen.

Foru Gobernu Kontseiluaren 593/2021 Erabakia, urriaren 13koa. Onestea Araban berrikuntza eta digitalizazioa sustatzeko laguntza lerroaren ebazpena (Araba Berritzaile - Digitaliza 2021-enpresak), zeinaren deialdia abenduaren 22ko 667/2020 Erabakiaren bidez egin baitzen.

Foru Gobernu Kontseiluaren 594/2021 Erabakia, urriaren 13koa. Onestea Araban berrikuntza sustatzeko laguntza lerroaren ebazpena (Araba Berritzaile - Digitaliza 2021-elkarteak), zeinaren deialdia abenduaren 22ko 667/2020 Erabakiaren bidez egin baitzen.

ENPLEGU, MERKATARITZA ETA TURISMO SUSTAPENAREN ETA FORU ADMINISTRAZIOAREN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 595/2021 Erabakia, urriaren 13koa. EDP Clientes SAUri esleitzea Arabako Foru Aldundiaren instalazioak gas natural kanalizatuz hornitzeko esparru akordioan oinarritutako kontratua, 2021eko azaroaren 1etik 2023ko abenduaren 31ra arteko gauzatze epearekin, 443.158,37 eurotan, BEZa barne.

Foru Gobernu Kontseiluaren 596/2021 Erabakia, urriaren 13koa. Onespena ematea COVID-19k Arabako merkataritza sektorean sortutako jarduera gastuei aurre egiteko Kontseiluaren martxoaren 2ko 84/2021 Erabakiaren bidez deitu ziren ezohiko laguntzen ebazpenari.

OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 597/2021 Erabakia, urriaren 13koa. Onestea Euskal Herriko Unibertsitatearekin (EHU) lankidetzat hitzarmen bat sinatzea, ezagupenak elkarrekin partekatzeko.

Foru Gobernu Kontseiluaren 598/2021 Erabakia, urriaren 13koa. Zenbait partida funtsez hornitzeko aurrekontu aldaketako zenbait espediente onestea, Araban berrikuntza eta digitalizazioa sustatzeko 2021erako laguntza deialdia (Araba Berritzaile - Digitaliza) ebazteko xedeaz, Ekonomia Garapenaren, Berrikuntzaren eta Demografia Erronkaren Sailak hala eskatuta.

Foru Gobernu Kontseiluaren 599/2021 Erabakia, urriaren 13koa. Onestea 24/2021 konpromiso kreditua sortzeko espedientea, "Mandaitako hondakin urak Iruñako araztegiarekin lotzeko obrak" gastu egoerako partida sortu berrian, Ingurumen eta Hirigintza Sailak hala eskatuta.

Foru Gobernu Kontseiluaren 600/2021 Erabakia, urriaren 13koa. Onestea 1/2021 baliogabetze bajaren espedientea, Arabako Foru Suhiltzaileak erakunde autonomoaren aurrekontukoa, eta 137/2021 kreditu transferentziaren espedientea, Arabako Foru Aldundiaren aurrekontukoa, 19.767,27 eurokoak, sailak hala eskatuta.

BIDE AZPIEGITUREN ETA MUGIKORTASUNAREN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 601/2021 Erabakia, urriaren 13koa. Honako proiektu hau prozedura irekiaren bidez kontratatzeko espedientea onesta: "N-124 errepidea 25,50 eta 28,00 km-en artean bikoizteko eta autobia bihurtzeko eraikuntza proiektua, N-124 errepidea 25,5 kilometrotik 31,90 kilometrora bikoizteko eta autobia bihurtzeko eraikuntza proiektutik berezia". Aurrekontua: 16.489.259,57 euro, BEZa barne. Gauzatzeko epea: 30 hilabete.

NEKAZARITZA SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 602/2021 Erabakia, urriaren 13koa. Ezestea Kontseiluaren uztailaren 27ko 478/2021 Erabakiaren aurka jarritako berraztertze errekurtoa (esp. 06-2021-5414).

INGURUMEN ETA HIRIGINTZA SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 603/2021 Erabakia, urriaren 13koa. Onestea Mandaitako hondakin uren isurketak Iruña Okako eskualdeko hondakin uren araztegiara isurtzeko proiektu aldatuko obren urteko kuotak birbanatzea 2022. urtetik 2021. urtera, 172.144,43 euroko zenbatekoaz, BEZa barne.